



AZPEITIKO
ARGAZKI
ELKARTEA

UROLA BAILARAKO XLII. ARGAZKI RALLYA AZPEITIAN 2019 APIRILAK 7

OINARRIAK

- 1 - **Kamera digitala** eta memoria-txartela duten guztiek har dezakete parte.
- 2 - Izen ematea, Azpeitiko Argazki Elkartearen egingo da, Perez Arregi 1-1 helbidean (Telefonika Zaharrean), goizeko 9:00etatik 9:30 bitartera, eta txartelen hustuketa toki berdinean 13:00etatik 14:00etara.
- 3 – Izena emateko orduan 10€ ordainduko dira eta 16 urtetik beerakoek ez dute ezer ordainduko. Guztientzako hamaiketako egongo da.
- 4 – Ibilbidea: Azpeitia.**
- 5 - Partaide bakoitzak **hutsik** dagoen memoria txartela ekarriko du. Bertan aterako diren argazkiak erresoluzio onenean aterako dira, JPG formatuan.
- 6 - Rallya 14:00etan bukatuko da. Egoitza berean deskargatuko diren txartelak, gehienez 36 (kontrolako argazkia/argazkiak barne) argazki izango ditu, **ezabatu ahal izango delarik. Argazkiak ezingo dira manipulatu. Ordenagailuaren erabilera debekatuta dago. Berezkotasuna, sormena, eta teknika** izango dira kontutan puntuak ematean.
- 7 - Partaideak gai bakoitzeko argazki bat aukeratu eta 2019ko **Apirilaren 11a baino lehenago** posta elektronikoz argazkiakaa@gmail.com helbidera bidali beharko ditu, partaidearen zenbakia eta aukeratutako argazkien zenbakiak adieraziz.
- 8 - SARIAK:Nagusietan:
 1. Bilduma onena: 150€ eta Azpeitiko Eskudela
 2. Bilduma onena: 120€ eta Garaikurra
 3. Bilduma onena: 90€ eta Garaikurra
 4. Herriko 1. ez saritua:..... 60€ eta Garaikurra
- 16 urtez beherako Gaztetxoetan:
 1. Bilduma onena:Garaikurra.
 2. Bilduma onena:Garaikurra.
 3. Bilduma onena:Garaikurra.
- 9- Epaimahaiaren erabakia jakin ondoren, argazki guztiekin argazki emanaldia eskainiko da eta ondoren sari banaketari ekingo zaio (rallyko egun berean jakinaraziko da eguna).
- 10- Argazki sarituak antolatzaileen esku geldituko dira eta egokia irudituz gero, erabiltzeko eskubidea izango dute egilearen izena aipatuz.
- 11- Oinarri hauetan jasotzen ez den zerbait sortuz gero, bere erabakia antolatzaileen esku legoke.